

IRABAZI-ITURRIAK

Proiektu hau aurrera eramateko eta errentagarria izan dadin ezinbestekoa da diru sarrerak izatea. Gure diru sarrerak panpinen salmentatik lortuko ditugu. Uste dugu, hasieran 100 panpin inguru salduko ditugula hilabetean, baina ideia orijinal bat denez pentsatzen dugu hilabeteak pasa ahala gero eta ezagunagoa egingo dela txikienen artean eta gure diru sarrerak handitzen joango direla.

Hasieran, gure ideia errealitatera ekartzen hasteko hirurok diru kantitate bat jarri beharko dugu. Kalkulatu dugu bakoitzak 2500€ jarri beharko dituela, baina hilabeteak pasa ahala diru hau berreskuratzen joango gara nahiz eta hasiera batean pixka bat kostatu. Diru kantitate hau izango da guk jarri beharko dugun bakarra, izan ere, gure irabazien zati handi bat gure produktua ekoizten jarraitzeko erabiliko dugulako horrela etorkizunean diru sarrera handiagoak izateko.

Gure iritiz, lehenengo hilabetetan 70 ale inguru salduko ditugu hilabetean Toys R' Us jostailu dendan, beraz, honek, 3150€ko diru sarrerak emango dizkigu.

Beste alde batetik, gure web gunean ere eskuragarri egongo dira panpinak, baina uste dugu web gunearen bitartez Toys R' Us-en baina salmenta gutxiago izango ditugula, izan ere, Toys R' Us jostailu denda oso ezagun bat da Espainia mailan eta uste dugu errazagoa izango dela jendeak denda hauek bisitatuz eskuratzea gure panpina. Horregatik, kalkulatu dugu web gunearen bitartez 30 panpin inguru salduko ditugula hilabetean, 1350€ko diru sarrerak sortuz.

Beraz, 4500€ko diru sarrerak izango ditugu hilabetero eta 54.000€ urtean. Guk uste dugu lehenengo hilabetetan ez dugula irabazirik edukiko, izan ere, hasieran ondoren izango ez ditugun hainbat gastu ordaindu beharko ditugu, mugikorra edo web gunearen domeinua adibidez. Nahiz eta hasieran irabazirik ez izan, pixkana irabaziak lortzen joango gara eta urte bukaerarako 2.935€ko irabaziak izango ditugu. Uste dugu izango ditugun irabazi kantitatea denbora pasa ahala handitzen joango dela.